

BERRIGARA

24. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, otsailak 23



Zuri-zuri

Autoberezi


5ko Urteko kotxea

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA



1996ko Urteko kotxeak



FIAT *Alfa Romeo* 



Independents

Martxoak hiru da aurtengoan
bozketarako eguna:

intsumisioak animatzea

bada egin nahi duzuna,

helburu gisa baldin baduzu

presoen askatasuna,

independentzia bada zuretzat

Euskadin behar duguna

egun horretan gogoz botatu

ezazu **HERRI BATASUNA**

Independents

Independents

BOZKATU

HERRI BATASUNA



ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

1.000 ale.

Primategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

§§ 50/91

SSN:

130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iruzkinen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


PEDRO MUJICA *Virago taldeko zuzendaria*

- Zein erantzun jaso du Virago antzerki taldeak antolatutako antzerki ikastaroa?

- 8 lagunekin hasi gara lanean. Larunbatean bertan hasi ginen eta ikastaroa maiatzaren 25era arte izango da, larunbat goizetan Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan. Ikasleak gazteak dira denak, 16 urtetik 22 urtera bitartekoak eta gehienak mutilak, hiru neska besterik ez baitaude. Ikasle bat kenduta, guztiak bergararrak dira.

- Zer landuko duzue ikastaroan? Zeintzuk dira asmoak?

- Batez ere jokoan bitartez lan egingo dugu. Joko horietan espresibitate, erritmoa eta ahotsa lantzeko ariketak egingo ditugu, taula gainean ze-



lan egon ere jakitea garrantzitsua izango da... Dena den, ikasleek beraien markatuko dute nondik nora jo. Ez da teoriarik egongo eta gure asmoa testu bat lantzea da. Beharbada kurso amaierarako Bertolt Brechten testu bat egokituko dugu.

"Ikastaroan, antzerkigintzaren hainbat alderdi landuko ditugu jokoan bitartez"

I T U R R I O N E T I K

San Martzial ingurua txukuntzeko asmoa du Udalak

Udaleko Hirigintza Batzordeak San Martzial ingurua txukuntzeko asmoa du. San Martzial egunerako jarri eta urte guztian bertan egoten diren mahaiaren arazoari irtenbide bat topatu nahi dio Udalak. Oraindik ez da proiekturik landu baina Hirigintza Batzordearen asmoa harrizko mahai batzuk jarri, zuhaitzak landatu edota aparkaleku bat egitea litzateke. San Martzial egunerako, berriz, mahaiak alokatu beharko lirateke. Azken urteetan koadrilek bertan utzi izan dituzte mahaiak eta horren inguruan hainbat kexa jaso ditu Udalak. Proiektua landu baino lehen Diputazioko ordezkariekin biltzeko asmoa du Udalak.

E S A N D U T E

"Bilbo osasuntsuagoa izatea bultzatu nahi dugu, bizilagunen bizitza kalitatea hobetzen ahalegindu eta, era berean, 1300. urtean hiria sortu zenez geroztik nagusia izan den aktibitateari, komertzioari, lagundu nahi diogu, etorkizunean indartsu jarrai dezan. Bilbon bereziki komertzio txiki eta erdi mailakoak aldaketa nabariak izan ditu Bilbo inguruan jarri diren superfizie haundiak direla eta. Horren analisi sakona egin ondoren hartu beharreko neurriak aztertuko dira"

JUAN CARLOS LOIDI

Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo arloko ordezkaria
BILBAO

"Dudarik ez dago irakaskuntzan bertsolaritza bete-betean sartu behar dela. Betegarri gisa erabiltzea gure herriaren literaturari burla egitea litzateke"

ANDRES OSA "SAKONA"

Irakaslea
DEIA

**SEVEN**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.


Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**LA LLAVE MAGICA**

Igandea: 11.30.

**SED DE MAL**

Ostirala (hilak 1): 20.00.

Zinea

▼▼ Zazpi pekatu nagusien inguruan moldatutako filmea egin du **David Fincher** zuzendari iparramerikarrak. Pekatu bakoitza aitzakiatzat hartuta, hilketa beldurgarriak egingo ditu *John Doek* (**Kevin Spacey** aktorea). *William Somerset* eta *David Mills* poliziak (**Morgan Freeman** eta **Brad Pitt**) hiltzailearen atzetik ibiliko dira baina honek sorpresa bat prestatuko du amaierarako... Azken asteetan publikoaren erantzun onena jaso duen filmea.

▼▼ **Lynne Reid Banksen** nobelan oinarriturik, **Frank Ozek** zuzendutako filme matinallean. Bere 9. urtebetetzean *Omrik* (**Hal Scardino**) hainbat opari jasoko ditu, tartean armario bat eta plastikozko indio bat. India benetako indio bihurtuko da hurrengo goizean, istorio majiko bati hasiera emanez.

▼▼ **Orson Wellesek** (argazkian) 1958. urtean errodatu zuen klasiko hau. Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugan hasten da istorioa. *Hank Quinlan* polizia boteretsuak (**Orson Welles**) nahi duena egiten du baina *Ramon Vargas* (**Charlton Heston**) polizia mexikarrak aurre egin beharko dio... **Marlene Dietrichen** partaidetzarekin.

Deiak

▼ **Benito Canteroren** argazki erakusketa Pol-Poleko aretoan otsailaren 25era arte. Egunero, arratsaldeko 7etatik 9etara.

▼ **Pedro Luis Ormazabalen** argazkiak Elgoibarko Kultur Etxean, otsailaren 29ra arte. Astelehenetik larunbatera 6etatik 9etara.

▼ **Erakusketa.** Komite Internazionalistak eta Mugen Gaietik erakundeek migrazio eta arrazismoari buruz antolatutako erakusketa Kultur Etxean.

▼ **Mendi irteera.** Pol-Polek 14 urtetik gorakoentzat antolatutako mendi irteera Balerdira igandean, hilak 25. Izen-ematea Pol-Polen.

Ogia

▼ **Igandea 25:** Bolintxo.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 23:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 24:** Puy/Morales.
- ▼ **Igandea 25:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 26:** Guallar/Español.
- ▼ **Asteartea 27:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 28:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Osteguna 29:** Camacho/Amezua.

Amets

- **HERGO** eta **HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak
 - Zango erremolkeak
 - Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
- Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

ANTIA**HARATEGIA URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

AHTren kontrako astea

Hitzaldiak, erakusketa edota mendiko martxa

Abiadura Haundiko Trenaren Aurkako Asanbladak otsailaren 22tik 29ra bitartean hainbat ekitaldi antolatu ditu Bergaran. Euskadi mailan eratuta dagoen asanblada horrek Bergarako lagun batzuekin kontaktatu zuen Bergaran abiadura haundiko trenaren aurkako astea antolatzeko.

Bergaran ez dago trenaren aurkako asanbladarik baina lagun talde horrek astean zehar izango diren ekitaldietarako beharrezkoak ziren hainbat lan egin ditu. Atzo, osteguna, arratsalde hitzaldia eta bideo emanaldia izatekoak ziren Angiozarren eta bihar larunbata, berriz, panelen erakusketa izango da ikusgai Plazan herriari informazioa emateko. Horrela, aipatutako erakusketan, planoen bitartez trenak izango duen ibilbidea eta horrek izango lukeen eragin ekologikoa azalduko dira. Panelak eguerdiko 12etatik ordu bietara iku-



Igandeko mendiko martxaren ondoren, partaideek baba-jana egingo dute San Martzialen.

si ahal izango dira Plazan. Erakusketa bera herriko ikastetxeetan erakutsiko da astelehenetik ostegunera bitartean.

Mendiko martxa igandean

Igandean, berriz, mendiko martxa egingo da

goizeko 10 t'erdietatik aurrera. Martxa Beheko Estazioan hasiko da eta antolatzaileek Parteitti eta San Martzial ikusteko ibilaldia prestatu dute. Martxa bukatu ondoren partehartzaileek baba-jana egingo dute San Martzialen. Ez dago aurrez izena eman beharrik eta mar-

txara joateko interesa dutenak autobus geltokian bilduko dira goizeko 10 t'erdietan.

Amaitzeko, asteazkenean, hilak 28, Abiadura Haundiko Trenaren Aurkako Asanbladako kide batek hitzaldia emango du arratsaldeko 7 t'erdietan Pol-Poleko aretoan. Bertan trenaren proiektuaren inguruko xehetasunak emango dira eta ikusleek galderak egiteko aukera izango dute. Asanbladak ekitaldietan parte hartzeko deia egin du.

Igandean goizeko 10.30etan mendiko martxa egingo da Parteitti eta San Martzial ingurua ikusteko

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



zumelaga
JATETXEA

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Zuhaitz eguna

Lehengo zapatuan Bergaran ospatu zen zuhaitz egunaren inguruan komentario labur bat idazteko Berrigara aldizkaria zuzendu naiz.

Larunbat goizean lagun batekin pasiotxo bat egitera irten eta San Martzialera heldutakoan lagun talde bat zuhaitzak landatzen ikusi genuen. Zertan zebiltzan galdetu genien eta zuhaitz eguna zela erantzun ziguten, urtero ospatzen dela eta batez ere ikasleei zuzenduta dagoela. Ikasleei? Han ez ziren 20 ikasle baino gehiago!! Bergaran zenbat daude ba?

Hain inizatiba polita eta aberasgarria izanik, penagarria iruditu zitzaidan ikasleen erantzuna. Zelan ez da zuhaitz eguna Bergarako ikastetxetatik gehiago bultzatzen?

Ez al da plan majoa larunbatean, lagunartean, mendira buelta bat eman, zuhaitzak landatu eta ondoren bokadilo eder bat jatea? Ba hori zen antolatzaileen eskaintza eta hala ere ikasleek kale. Oso tristea da honelako ekitaldiek hain erantzun eskasa jasotzea. Argi dago errezena gero kritikatzeko dela, gazteek ez dutela denbora librea non pasatu eta horrelakoak.

Aitzakia igual azken egunetan egin duen eguraldi txarra izan daiteke eta




arrazoi pittin bat ere ez zaie falta hori esaten dutenei. Ez dakit egun aproposena zen lehengo zapatua zuhaitz eguna antolatzeko baina antolatzaileek bere arazoak izango dituzte. Hala ere, ikasleen erantzuna ikusirik, beste egun batetan zuhaitz eguna antolatzeko aukera aztertzeke eskatu nahi diet antolatzaileei. Bukatzeko nere zoriona honelako inizatibak martxan jartzen dituztenei eta ikasleei eta hauen gurasoei anima daitezela hurrengo edizio batean San Martzialera hurbiltzeko, Uste dut benetan pena merezi duela.

Besterik gabe, agur bero bat Berrigara egiten duten guztiei eta mila esker karta hau idazteko aukera emateagatik.

MIKEL LARRAÑAGA

Tiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ



Udalaren eta Iralako jabeen arteko hitzarmena sinatu zen ostiralean

IRITZIAK

Victoriano Gallastegi (EAJ)

Maila urbanistikoan oso garrantzitsua da lortu dugun akordioa. Urtetan ezer egiteke egon da gai hori eta irtenbide bat topatzeko ordua zen. 18 milioi lortu dugu eta balorazio topea 20 milioi lortzea zen. Herriarentzako akordio oso ona da.

Jesus Mari Garitano (HB)

Irizar Jauregitik Bideberriraino ikusi besterik ez dago zein erai-kin bolumena dagoen. Orain zinearen erabilera aldaketagatik 18 milioi jasotzea huskeria iruditzen zaigu. Gure ustez nahiko plusbalia atera dute terreno horretatik orain arte.

Jose Antonio Etxeberria (EA)

Neretako oso akordio ona lortu da, inork ez baitio arazo horri eskua sartu orain arte. Diru kontuari baino, urbanistiko mailan topatu den irtenbideari garrantzia ematen diot. Uste dut proiektu dotorea joango dela bertan.

Alvaro Esparza (PSE-EE)

Balorazio positiboa egiten dugu. Orain 2 urtetik irtenbide bat topatu nahi genion gai horri eta azkenean akordio oso ona lortu da, kontutan izanik Udalak 18 milioi jasoko dituela. Irala zinea egoera penagarrian zegoen.



Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, Irala bota eta bertan beste edifizio berri bat eraikiko da.

Aurreko ostiralean

Bergarako Udalaren eta Irala zine aretoko jabeen arteko hitzarmena sinatu zen. Sinatze ekitaldian Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Espectáculos Bergara S.A.ko ordezkariak diren Jose Maria Irizar eta Jesus Quemada izan ziren.

Hitzarmenaren arabera, Udalak Irala zine aretoko lursaila lokal komertzialak, bulegoak eta garaiek jarri ahal izateko berkalifikatuko du. Udalarik dagokion %15eko aprobetxamenduaren eta erabilera aldaketaren ordainetan Espectáculos S.A.k 18 milioi pezeta ordainduko dizkio Udalarik.

Jabeek bost hilabeteko epea izango dute lokala botatzeko proiektua aurkeztu ahal izateko eta li-

zientzia jaso ondoren bi hilabetetan edifizioa bertan behera bota beharko da. Era berean, 10 hilabeteko epea daukate edifizio berriaren proiektua egiteko. Epe hauek datarren hilean egitekoa den Arau Subsidiarioen behin betiko onarpenaren menpe geldituko dira.

Jesus Quemadak eta Jose Mari Irizarrek lehen bait lehen lanean hasteko asmoa azaldu zuten. Alkateak zein Irala aretoko jabeek hitzarmen hau lortzea oso positibotzat jotzen, hainbat urtetan alboratutako arazo bati behingoz irtenbidea topatu baitzaio.



HILDAKOAK

Aste honetan, ostegunera arte ez da inor hil Bergaran.

JAIOTAKOAK

Sarai Plazas Navas

Otsailak 13

Yerkam Tena Sánchez

Otsailak 18

◆ Bertso afaria datorren ostiralean Osintxun


Datorren larunbatean, martxoaren 2an, bertso afaria izango da Osintxuko Txuringo jabetxean. Bertan Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak eta Jo eta Su trikitilariak izango dira. Izen-ematea (2.500 pezeta) Txuringon bertan.

◆ Martxoaren 4an itxiko dira igerilekuak

Datorren martxoaren 4an udal igerilekuak itxi egingo dira Osakidetzak agindutako garbiketa egin ahal izateko. Kirol Zerbitzuak adierazi digunez, astebete inguru itxita egongo dira igerilekuak.

◆ Etxaniz eta Ibaberen omenezko jaialdia

Gaur ostirala, otsailak 23, Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabe preso bergararren omenezko jaialdia izango da Udal Pilotalekuan gaueko 10 'erdietan. Bertan, besteak beste, Leire, Monika eta Ane abeslariak eta Bittor Aiape kantari gazteak hartuko dute parte. Presoen senideei ere omenaldia eskainiko zaie. Jaialdirako sarrerak 400 pezetan salduko dira.



Bergarako Elkarrikoek prentsaurrekoan eman zituzten ezagutzera inkestako emaitzak.

Elkarrizketa eta distentsioa ez ei dute bultzatzen alderdi politikoek

Elkarrik egindako inkestan horrela jasotzen da

Begarako Elkarrik abenduan herritarrei egindako inkestaren emaitzak agertu zituen astelehenean. Elkarrik herriko alderdi politikoek jarrerak elkarrizketa eta distentsioa bultzatzen ote zuten galde-tu zieten herritarrei. Guztira, 4.000 inkesta banatu baziren ere, 194 erantzun jaso ditu Elkarrik. Elkarriren galderari 183k ezezkoa eman diote eta 11k, berriz, baiezkoa.

Alex Barruso Elkarriko kideak azaldu zuenez, "Elkarrik horren balorazioa egin beharrean gure asmoa da alderdi bakoitzarekin bildu eta hori aztertzea. Bigarren pausua alderdi guztiak eztabaidarako biltzea izango litzateke, ikus-teko ea posiblea den iritzi bateratu batera heltzea. Alderdiei izpiritu

baikor eta eraikitzailearekin etortzea eskatzen diegu, besterik ez". Jasotako erantzunari dagokionez, Barrusok ez zuela erantzun gehiago espero adierazi zuen; "oso gutxi dira demokrazia partizipatiboan sartzen direnak, botoa delegatzen dute eta kitto".

Bestalde, herritarren partaidetzarekin, eztabaidarako foroak jarriko ditu martxan Elkarrik. Hilean behin 20-30 lagun bilduko ditu Elkarrik eta bere asmoa ideia ezberdineko jendea biltzea da. Helburu nagusia herriari hitza ematea izango da, eztabaidaren kultura zabaltzea eta Euskal Herriko pake prozesuari gizartetik bultzada bat emateko asmoz. Bi urtera begira planteatu dira eztabaida foro horiek.

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Enplegu ekimenei buruzko jardunaldiak Bergaran


Martxoaren 13, 14 eta 15ean Kultur Etxean

Bergarako Udalak enplegu ekimenei buruzko jardunaldiak antolatu ditu martxoaren 13, 14 eta 15erako. Jardunaldiak goizez izango dira, 10etatik ordubatera Kultur Etxean eta Mariaje Unamuno Udaleko enplegu teknikariak azaldu digunez, "ponentziak baino gehiago, lan praktikoak aztertuko dira jardunaldietan. Enpresa ideiak nola bultzatu, ze pauso eman behar diren negozio bat martxan jartzeko... Negozio berri baten inguruko gorabehera guztiak landuko dira Bultzlan Consulting-eko langileekin batera".

Beraz, enpresa ideiarenekin bat duten herritarrei edo horren inguruko

informazioa jasotzeko interesa duten guztiei zuzenduta daude enplegu ekimeneko jardunaldiak. Lehendabiziko egunean, martxoaren 13an, ideiarenekin azterketa jorratuko da; martxoaren 14an, berriz, negozioa martxan jartzeko finantziarioa, arautegia eta afiliazioak izango dira aztergai eta, bukatzeko, martxoaren 15ean, negozioaren gestioa.

Jardunaldietan kasu praktikoak lantzeko aukera izango da. Informazioa jaso edota izena emateko (5.000 pezeta) interesatuek Udaleko Enplegu eta Gizarte Araozetarako Sailera (77 91 65 telefono zenbakia) jo dezakete martxoaren 8ra arte.



Enpresa ideiarenekin bat duten herritarrei zuzenduta daude jardunaldiak.

◆ Hauteskunde kanpaina

Bihar larunbata, hilak 24, Donostian egingo den manifestazioara joateko autobusa antolatu du HBk. Irteera arratsaldeko 3 t'erdietan Frontoitik egingo da. Astelehenean, berriz, gazteei zuzenduta, hauteskundearen inguruko hitzaldia egongo da 7etan Arranon eta asteazken eta ostegunean ere hitzaldiak izango dira Osintxun eta Angiozarren.

◆ Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundiko gurasoen eskolako bilera izango da asteartean, otsailak 27, arratsaldeko 6 t'erdietan.

◆ Jardunen ikastaroak

Jardun Elkarteko Gazte Taldeak taila ikastaroa antolatu du martxoaren 11tik ekainaren 3ra bitartean. Zigor Martínez izango da irakaslea eta klaseak astelehenean emango dira, 7etatik 9etara. Bestalde, Mikel Ostolazaren eskutik, txalaparta ikastaroa izango da martxoaren 14tik maiatzaren 30era bitarteko asteazken edo ostegunetan. Prezioa 1.500 pezeta bazkideentzat eta 2.000 gainontzekoentzat. Izen-ematea martxoaren 6ra arte zabalik Jardunen (76 08 19 telefonoa).

◆ Idazleen egutegia

Euskal Idazleen Elkartearen egutegia doan jasotzeko interesa dutenak Jardunetik pasa daitezke.

◆ Haurrentzako bideoa

Jardunek antolatuta, bihar larunbata, 11etan, "Arturo erregea" haurrentzako bideoa emango da Kultur Etxean.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



3 urtetik 13 urterako guztientzat dago zabalik ludoteka eta nahi dutenean apunta daitezke.

Jolasaldia jolastokian

Xipizaro ludotekan 80 bat ume

Hurrek elkarrekin gero eta jolas gutxiago egiten duten sasoi honetan, eskolatik atera eta jolas egiteko aukera dute Xipizaro ludotekan. Bertan, Ane Laskurain eta Ainhoa Arbelaitz lagun dituztela arratsaldero eta larunbatero ordu politak pasatzakete.

Xipizaro -txikien aro- iparraldean haurtzaro esateko erabiltzen den hitza jarri diote Ane Laskurainek eta Ainhoa Arbelaitzek ludotekari.

Irailaz geroztik ari dira bertan lanean haurrez inguratuta. Eskolatik atera eta bokadilloa janez Xipizarora joaten dira haurrak. Aranzadi ikastolan egon arren, ez da Aranzadirena, eta edozein ikastetxetako haurrak joan

daitezke bertara. Txikienak, 3-9 urtekoak, 17.15-etik 18.30era joaten dira, eta 18.30etik 19.30era nagusienak, 9-13 urtekoak.

Lehenengo txandan 53 ume dabilta, bigarrean, 28. *"13 urte artekoak etor daitezke, baina dugun zabarrena 11 urtekoa da. 13 urterekin kirolak, inglesa... beste zerregin batzutan sartzen dira eta ludoteka umeke-riatzat-edo jotzen dutela uste dugu".*

Asteburuetan, berriz, 10 bat ume joaten dira ludotekara. Aranzadi ikastolan dagoen ludotekara joaten diren 81 ume hauek gain, Osintxun beste 20 elkartzeko dira Leire Arbelaitzen gidaritzapean.

Jolasak, kantuak, antzerkia...

Ume batzuk ikasgela berekoak dira, beste batzuk ez dute elkar ezagu-

tzen, denetarik dago. "Ludotekaren funtzioetariko bat aurretik elkar ezagutzen ez duten umeak erlaxionatzea da. Normalean koadrilak eskolan edo auzoan egindako lagunekin osatzen dira. Hemen, ostera, denek elkar ezagutzen dute eta elkarrekin ibiltzen dira normalean".

Haurrak elkartu eta jolas egiteko lekua da, beraz, ludoteka. "Etxe-txokoan kozinuketan ibiltzen dira; irakur gelan, irakurri eta ipuinak kontatzen dituzte; mahai jokoekin jolastu, billarrean edo futbolinean ibili... nahi dutena egiten dute. Asteazken zehar ez dugu programaketarik, ordu t'erdian ez dago programaketa bat zorrotz jarraitzeko astirik eta euren nahi dutena egiten lagatzen diegu, nahiago baitute euren kasara ibiltzea".

Bakalaoa dantzatzea gustoko

Lehenengo eta bigarren txandako hurrek astialdian era desberdinean disfrutatzen dute. "Txikie-

nei, batez ere, margotzea gustatzen zaie, bigarren txandakoei, berriz, mahai jokoekin ibiltzea". Jon Leiba aurten hasi da ludotekara joaten: "oso ondo pasatzen dudalako etortzen naiz, gebien jokoekin ibiltzea gustatzen zait, Pepito pulpitorekin".

5 urteko Jaione Carpintero 17:15etan sartu denetik margoak eskuan hartu eta marrakia koloreztatzen ari da. "Ondoen margotzen pasatzen dut. Haundi egiten naizenean margolari izan nahi dut". Olatz Montealegrek bigarren urtea du ludotekan. "Neri gebien gustatzen zaidana antzerkia egitea da".

Ainhoa Arbelaitzek dioskunez, ostiralean egin zuten azkenenengo aldiz antzerkia: "umeak moztortu eta antzerkia egiten primeran pasatzen dute". Olatz ez dago Ainhoak esandakoarekin ados eta bere hitzak entzun orduko gauzak behar bezala esaten hasten da. "Ostiralekoa ez zen antzerkia izan, aurpegia margotu, abestu, eta asmakizunak eta txistek kontatu genituen, baina

antzerkirik ez genuen egin".

Hala ere, eta zenbaitek jolas batzuk beste batzuk baino nahiago izan arren, Ainhoak eta Anek diotenez, denak zorutzen

dituena dantza egitea da. "Bakalaoa dantzatzea ikaragarri gustatzen zaie. Egunero egin nahi izaten dute, eta hasieran sarritan egiten genuen, baina orain bakarrik os-



Ludotekan, lehenengo jokoak erakusten diete, astialdian jolas egiteko beste aukera batzuk izan dituzten.

Juan Liza

Erreportaia eta estudioa
Bideo erreportaiak

ADI ORAIN: erebelatu bakoitzeko
20x25eko anpliazioa doan

Irizar, 2 BERGARA ☎ 76 27 49 • Gabolatx, 3 SORALUZE ☎ 75 20 15

COLOR TEMPO

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

Matxiategi
Elektragarintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

tiraletan egiteko erabakia hartu dugu".

Dena eginda ematea nahi

Ainhoaren eta Aneren iritziz lehen irudimen handiagoa zuten hurrek, edozer gauzarekin jolasen ziren. "Orain dena eginda ematea nahi dute. Puzzleekin ibiltzen dira, mahai jokoeekin... baina jostailurik gabe ez dakite zer egin. Gainera gutxitan ibiltzen dira bakarrik, obituta daude gurasoekin ibiltzen, eta ez da lehen bezala, oraingoek ez dute jolasteko obitura gehiegirik. Dena den, beste jolas batzuetan ez dira ibiltzen

"Euskarazko errefortzu taldekoak ludotekan sartzeaz bat euskaraz hasten dira. Oso serio hartu dute eta oso motibatuta daude"

ez dakizkitelako. Ezagutu ezean nola jolastuko dira, bada? Gu saiatzen gara lehengo jolasteko erak erakusten: zelaminetan ibiltzen -txintxorroska koadroetan barria sartzea-, tortoloska, goman, soka saltoka... Joan zen astean, esaterako, zelaminetan ibili ginen eta oso ondo pasa zuten. Orain, jolas berri bat dakitenez, aštialdian beste jolas bat dute aukeratzeko, gu jolas berriak erakusten saiatzen gara".

Ludoteka eta euskera

Euskara hobetzeko eta erabilera bultzatzeko hitzarmenaren barruan 5. mailako hurrek ludotekara joateko aukera dute; hartara, errefortzu taldekoei euskararen erabilerraren jarraipena egiten zaie. "Aurretik gaztekeraz jardun arren, ludotekan sartzeaz bat euskaraz hasten dira. Eztabaida sutsuren bat badute ere ez dute gaztekerara jotzen, euskeraz jarrai-

tzen dute. Oso serio hartu dute, oso motibatuta daude eta euskaraz egiten dute berba. Are gehiago, elkar kontrolatzen ibiltzen dira, eta norbaitek gaztekeraz hitzegiten badu guri esatera etortzen dira".

Asteburuetan kanpo ekintza gehiago

Programaketa egun jakinetan eta asteburuetan jarraitzen dute. "Orain esaterako, ibauteriak dirrela-eta asteartean mozorrotu eta merienda izan dugu. San Sebastian egunean danborrada egin genuen, Santo Tomas egunean txistorrada, martxoaren 19an aitaren eguna tarteko aitari erregalatzeko detalletxoren bat egingo dugu...".

Asteburuetan ume gutxiago joaten da, 10 bat. "Denbora librean zer egin ez dakitenak lagun artean pasatzeko, telebista aurrean denbora gehiegi ez emateko... arrazoi desberdinengatik etortzen dira. Orain eguraldiak ez du asko laguntzen, baina ona egiten duenean kanpoan gehiago ibiltzen gara; bai Bergaran, bai he-



Haurrei gehien gustatzen zaiena bakalaoa dantzatea da.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Uriarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77



Astegunetakoek urte osoagatik 1.200 pzta. ordaintzen dute. Asteburuetaoek hilean 1.720.

*mendik kanpora eskursi-
oak egiteko asmoa dugu,
bostoak batu eta herba-*

*ria egin, e.a. Apirilean,
bestalde, asteburuetao
taldeak, Elosuko apaiz*

*etxean 3 egun pasatzeko
plana ere egina dugu,
ikus egin bebar...".*



ALEX GARCIA
10 urte, 5. maila

"Eskolako lagunak etortzen gara.
Ni 9 urterekin hasi nintzen. Kan-
poan ez naiz jolasten, eta ondo
pasatzen dudalako etortzen naiz"



MAREN BELASTEGI
9 urte, 4. maila

"Egunero etortzen naiz. Irrikitzen
egoten naiz hemen jolasteko.
Gehien mahai-jokoetan ibiltzea
gustatzen zait"

Miguel Altuna Institutua

BERGARA

Hezilan plana

HASIERA: Martxoak 4

- Dinarritzko elektrizitatea 40 ordu
- CNC. Tornua 40 ordu
- Word 40 ordu

HASIERA: Apirilak 4

- Ordenadore bidezko diseinua 50 ordu
- Ordenadorez programatutako automatik 40 ordu
- CNC Fresa 40 ordu
- Dinarritzko mekanografia ikastaroa 60 ordu
- Komunikazioa enpresatan eta erakunde ofizialetan 60 Ordu
- Dinarritzko kontabilitatea 60 ordu



Miguel ALTUNA intstitutua

Ibargarai, 1. Telefonoa: 76 24 91. Faxa: 76 38 41 Bergara



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Saila

IV. KAPITULUA

ENSEÑANTZAKO ORGANO BITXIA

Berrehun urte inguru dituen eliza honetan bi organo ezberdin izan dira. Lehenengoa, Juan de Amezuarena, eta bigarrena, gaurkoa, haren seme Aquilinorena.

1851ko otsaileko lehenengo egunean, Azkoitin, eta notario aurrean, Juan de Amezuak eta Maria Josefa Irulegik, kontratu bat sinatu zuten, zinearen bitartez Amezua organugileak Bergarako Mariaren Lagundiaren elizarako organo bat egiteko konprometuzua hartzen zuen. Donazio bat izan zen, "en atención a que su hija Doña Segunda Larreta tomó el estado de religiosa en la Comunidad de la Enseñanza...".

Erregistro edo soinu ezberdinak

Organo hark zatikaturako teklatura zeukan, hau da, erditik behera eta erditik gora erregistro edo soinu ezberdina. Kanpoalde edo fatxadan, lehenengoetarikotuboak zeuzkan. Baliteke tubo horiek horizontalki kolokatuak egotea, "de batalla" eran.

Organo horrekin zer gertatu zen? Ziur ezin jakin, baina baliteke organo barroko hura zaharkitua gelditzea, eta bere

tronpeta txirimiak... doinu fuerteegia edukitzea monjen gustu berrientzat, monjarretakoan pasatutakoaren antzera.

18.000 pzta.

Gaur egun dagoen organoari buruzko lehen berriak 1900. urtekoak dira. Monjek, Aquilino Amezuari 18.000 pzta. ordaindu zizkioten, "por pago y colocación". Honek esan nahi du, organo hau ez zela espreski elizahonertarako egin eta hemen baino lehen beste nonbait egon zela. Organoa oparitzen.

Saloiko organoa

Saloiko organoa da, ez elizakoa. Bere kaxa ederrak, egurrez egindako lanez beteak, hori adierazten digu argi eta garbi. Organoa, 1896. urtekoa da baina Bergaran 1900.etik dago.

Fatxada benetan zoragarria du eta hiru gorputzekoa da. Erdian, Santa Zezilia, musikariaren zaindaria, ageri da organoaren josten. Honen alboetara lau konposagile ospetsu, bi ezkerrean eta beste bi eskumaldean: Beethoven, Wagner, Chopin eta Mozart. Hau-

BERGARAKO ORGANOAK

uen bustoa agertzen da, medalloi erara, eta buru hauen azpian bakoitzaren melodia ezagun bat, egurrean landua. Detaile guzti hauek argi adierazten dute instrumentu hau saloi baten egoteko egin zela.

Hiru teklatu

Hiru teklatu dauka, pedalierra eta 16 erregistro. Hirugarren teklatuak akordeoiaren sistema berdina dauka, lengueta txikiz osatua, eta ez organoen tubo siste-

Fatxada zoragarria eta hiru gorputzekoa da. Erdian, Santa Zezilia, musikariaren zaindaria, organoaren josten. Honen alboetara lau konpositore: Beethoven, Wagner, Chopin eta Mozart.

ma. Badirudi 1914 urte inguruan, frantziar afinadore batek erregistro joko oso bat eraman zuela "konpontzera".

Ez zen gehiago inolako berririk izan, ez erregistro ezta afinatzailekerik ere. (Au revoir!!).

Garai bateko giroa

Bai organoak eta bai koruak, bere aulkiteria monastikoarekin, xarma handikoa bihurtzen dute monjarberrietako txoko hau, garai bateko giroa egoki errekreatzu.



18.000 PZTA. ORDAINDU ZUTEN MONJA BERRIEK ORGANOAGATIK.

Elurteak herria zuritu du

Arazo haundienak Angiozar eta Elosun

Aspaldiko partez elurra izan dugu aste hone-tan Bergaran. Astearte, asteazken eta ostegunean elurte nahiko gogorak izan ziren eta ondorioz karnabal zuriak izan ditu-gu aurten.

Elurrak, karnabal giroa hozteaz gain, hainbat arazo sortu ditu herrian. Udaltzaingoak adierazi duenez, kotxeek arazoak izan dituzte egunotan Bergarako kaleetan. Bolu, Toki-Eder edota Arrizuriko aldapetan, gidari-ek, susto bat baino gehiago hartu dute. Udal langileek gatza bota behar izan zu-ten errepidean eta hainbat lekutan elurra kentzeko makina pasatu be-harra ere egon zen.

Espaloietan ere elurra kendu behar izan zen oinezkoen segurtasunera-ko. Udaltzaingoan hitze-tan, "espero baino arazo gutxiago izan dira elur-rarekin, nabiko erraz urtu da elurra eta".

Hala ere asteazken goizean argindarra joan zen eta eguerdi aldera ar-

Asteartetik ostegunera bitartean elurra mara-mara egin du eta ondorioz, herriko kaleak zuri-zuri agertu zaizkigu.



te mozketa laburrak izan ziren herri osoan. Beti be-zala, gaztetxoak izan dira elurrarekin gehien disfruta-tatu dutenak.

Ezin daiteke gauza bera esan errepidean ibili behar izan dutenez. Elosuko mendatea itxita egon da (ostegun goizean elur kapa 60 cm.koa zen) eta Arrasate, Eibar edota Elgetara joateko (Asen-tzion elur kapa 70 cm.koa zen asteazkenean) kataiak beharrezkoak izan dira. Angiozarren, berriz, elur

kapa 40 cm.koa zen oste-gunean. 1993ko otsailaren

28tik ez da halako elurte-rik izan Bergaran.



Istripua Mekolalden. Astelehen goizean istripu ikusgarria izan zen Mekolalden. Argazkian ikusten den kamioi haundiak alboko garajearen paretaren kontra dagoen furgoneta jo zuen eta ondorioz bi gidari-ek zein garajeko langileek susto ederra hartu zuten. Furgoneta kamioiaren aurretik zetorren Bergaratik Osintxura bidean eta ezkerraldera jiratzera zihoanean atzeko kamioiak frenatu eta remolkea gainera etorri zitzaion, furgonetaran aurka txokatuz.

Bolu, Toki-Eder edota Arrizuriko aldapetan, gidari-ek susto bat baino gehiago hartu dute

PINTURAS BERGARA

**P
B**

Aranerrek, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

ARATUZTE ZURIAK



Telebistako lehiaketa arrakastatsuan izan ondoren, Bergarara.



Etxeko gazta guztia jan ondoren arratoi txoak kalera edari bila.



Hawaiko olatuak bezain onak omen daude Euskal Herrian...
Hauk bai meritua, leorren surfa egitea ez baita txantxetakoa.



Hirugarren gradua aprobetxatu eta karnabaletan parrandara.



ARATUZTE ZURIAK



Super eroiak, laguntzeko beti prest.



Braveheart pelikula arestian bota dutela eta, protagonistak Bergaran geratu omen dira.



Siuxak ere Bergaran... Jau!! Goian Mikel Ibarzabal Kukuma hankapalu taldeak egindako sardinarekin.



Deabruak eta aingeruak, elkarrekin. Gauzak aldatzen doaz...



Surfaliak lehorrean badira, zergatik ez piratak?

BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7.4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• GIARTZU	Boni Laskurain, 3 behea	☎ 76 35 71
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
-------------------	------------------------	------------

■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39

Osasuna

Sauna eta masajea

Sauna argaltzeko delako uste du askok. Zuk zertarako gomendatuko zenuke?

- Sauna ez da argaltzeko. Horretarako lagungarria izan daiteke baina oso emaitza eskasak lortzen dira. Saunarekin gorputza garbitzea lortzen da, desintoxikatze eta depuratzeko ona da sauna hartzea. Saunak bihotzaren erritmoa azkartzen du eta horrela odola gorputzeko atal guztietara heltzen da eta gorputza izerditan hasten da. Ez da oso atsegina saunako kaioian egotea baina irten-dakoan lasaitasuna sentitzen du gorputzak eta azala ere askoz leunago egoten da. Esan bezala, erlajatzeko primeran dator astean behin edo saunabat hartzea.

- Zein jenderi gomendatuko zenieke sauna erabiltzea?

- Denentzako da ona. Hala ere osasun arazoak (bihotzeko arazoak, diabetesa, tentsio arazoak, infekzioak... etab.) dituztenentzat ez da gomendagarria. Hobe saunara eto-

rri aurretik medikuari aholkua eskatzea. Igerilekuko saunara 25 urtetik gorako gizonak etortzen dira batipat, emakumeak baino ohitura haundiagoa daukate saunara etortzeko.



IRUNE AZPEITIA
(Igerilekuetako masajista)

- Zenbat denbora egon behar da saunan?

- Oso erlatiboa da ho-

ri. Ohitura dutenak askoz gehiago egoten dira saunabarruan. Lehenbizi dutxatu beharra dago, sika-tu (horrela izerditan gauden kontrolatuko dugu) eta jarraian 20 bat minutuz saunan sartu. Irten eta gero ur freskoagoarekin berri-z dutxatu eta nahi izanez gero sauna saio motzagoak errepikatu (10 minutukoak gutxi gorabehera).


- Masajea eta sauna osagarriak al dira?

- Ez daukazu biak zertan harturik baina hobeto geratuko zara, hori bai. Masajea hartzea arazoren bat dutenak edo nekea somatzen dutenak etortzen dira. Arazo horiek gehienetan bizkarrean eta hanketan izaten dira, askotan ohitura txarregatik sortzen direnak: postura txarretan egotearren zona batzuk kargatu egiten dira eta ondorioz zona hori deskargatzeko masajea hartzea komeni da. Normalean orduerdiko saioak izaten dira.

- Kirolariak etorriko dira nagusiki...

- Denetariko jendea etortzen da: kirolariak, etxeoandrek, langileak... Masaje bat noizean behin hartzea primeran etortzen da, beste gauza bat sentitzen duzu eta nahiz eta minik ez eduki askotan sentitzen dugun astuntasun hori masajearekin joaten da.

"Saunarekin gorputza garbitzea lortzen da, desintoxikatze ona da sauna hartzea"



Masajearekin gorputzaren astuntasuna joaten da.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA


Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan.



Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloia edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujok jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Garizuma errespetatzeko ohiturarik badaukazu?



Jabier Portu
46 urte, langilea

Etxean ipintzen didatenez jarraitu egiten dut baina bestela ez naiz akordatzen. Azken finean bete egiten dut etxetik datorren ohitura delako.



Valentin Eraña
75 urte, jubilatua

Aspaldian ez, lehen betetzen nuen bai. Orain jende gutxik egiten duela ematen du.



Gurutzne Elkoro
26 urte, langabetua

Ez. Etxean igual zedozer egiten dute baina nik sekula ez dut ezer egin tema horrekin.



Alicia Medina
35 urte, langilea

Jarraitzen dut bai. Akordatzen banaiz, behintzat, egiten dut. Batez ere lehendabiziko ostiralean egiten dugu ohiturari jarraituz.



Begoña Agirrebeitia
53 urte, etxekoandrea

Batzutan bai; beti beti ez baina batzutan bai. Batez ere ohituragatik betetzen dugu, hori da arrazoia nagusia.



Gabriel Medina
64 urte, jubilatua

Ez nere gurasoek ez zidaten erakutsi eta. Nire aitak bizitzeko lan egin behar zela esaten zuen, Gure Aita errezatzearekin ez zela nahikoa.

Biltoki.



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



D eredu eta kitto!!

Heldu eta, ia ia pasatu ere bai, seme-alaba ikastola, eskola edo kolegioan matrikulatzeko garaia eta lehenik eta behin salaketa garbia egin nahi nuke: eskola publikoari, guztion diruarekin egiten ari zaion propaganda benetan lotsagabe-keriazkoa dela. Hor ez da etikaren arrastorik ikusten.

Bestalde, ereduak direla eta, nahaste borraraste izugarria sortu da. A, B eta D ereduak hor daude. A ereduak ezertarako ez du balio. Haurra euskaldundu ordez, alferrik galdu besterik ez du egiten. Zergatik ez da argi eta garbi, agirian eta ofizialki esaten A ereduak ez duela haurra euskalduntzeko balio? Bigarren eredu, B eredu da. Berau ia arriskutsuagoa bihurtu da. Euskaraz eta erderaz, bietara, ikasten omen da. Itxura benetan oso polita baina polita bezain engainagarria. Eredu honek ez du ziurtatzen haurren euskalduntzea. Eredu bakarra, eta berau ongi eta serio eramaten bada, egokiena eta bakarra D eredu da. Esperientziak frogatu duenez, guraso erdaldunen seme-alabentzat, batez ere gomendagarriena da. Gainera, D eredu bakarrik ematen den tokian garantzia gehiago dago bi edo hiru eredu ematen den ikastetxeetan baino.

Azkenik, seme-alaben etorkizuna helburu nagusitzat badaukagu, zer dela eta isildu edo disimulatu D ereduak bakarrik beste ezerk ez duela bermatzen haurren euskalduntzea? Eskola garaia bukatu ondoren euskara ongi jakitea beharrezkoa du, lan munduan sartzeko baliagarri izateaz gain, eta ez da gutxi!, giza-harremantetan lagungarri izango zaiolako. Baita ere jendeak jakin behar du, gaztelania eta gainontzeko irakasgaiei dagokienez, beste eredu batzutan lortzen duten maila berdintsua edo handiagoa lortuko duelako berak ere. Guraso askoren arduragabekeriak negarra eta nahigabe ugari sortuko du familia askotan. Seme edo alabaren ahotik, zergatik euskara ikasteko aukera ukatu zenidan entzun beharra izatea ez da batere gozoa izango.

Andres OSA SAKONA



Ni 'komunista'

Badira egin beharra iristen denean, kopia gutxiarekin ebatzi beharreko auziak. Eta auzi bakoitzak, jakina denez, bere aldea eta aldia behar ditu. Esku artean narabilen zoroan, irakurle maite, aldiarenak derrigorrean txintxo-txintxo betetzen ditugu denok ere, baina aldearena bihurri samartxoia ere gerta liteke... Bergaran, esaterako. Herrian jasaten dugun komun publikorik eza da bihurrikeria horien eragile; eta egoera horrek eman dit ondoko gogoetok egiteko bidea.

Bergaran hamabost mila *arima* barik, hamabost mila bizilagun gara, eta komun publikorik bat ere ez! Komun publiko txukun eta erosoek ez al diote duintasunik ematen, dauzkan herriari? *Villa señoriala dok gero, Bergara!* Palazioak, elizak, oinetxeak, jauregiak, banketxeak... gura adina ditugu zabal-zabal herri osoan zehar; unibertitate ere bai, orain gainera euskararen *zama* gainetik astinduta, *light* eta airosoa... baina komun publikorik ez!

Akasorik akasoenean norbaitek erantzun ere egingo dit genero naturaleko komun-sistema ez dela txarrena... Kontxo! Pentsatzen jarrita, hori ere ez dago txarki esanda, baina gero eta arto gutxiago ereiten da bazterretan eta arto-arteak gero eta urriago eta urrutiago daude, eta jakina, egin beharrak kanpoan egiteko kontu horiek gero eta konplikatuagoak gertatzen dira.

Nik ez dakit komungile lanetan Eusko Jaurlaritzan behar dugun, eta beraz, komun autonomikoak dagozkigun; ala gertuago etorrita, komungintza Diputazioarena den, eta komunok foralak izan behar duten! Ea munizipalak nahikoa ditugun! Edota negozio honetan Bruselak ote du sudurra sartu beharra, eta Bergarari *eurokomunak* tokatzen ote zaizkio?

Kontua da komun publiko itxuroso batzuk horregaitio behar ditugula bergararrok -eta paseko paseanteek- eta lehenbailehen gainera.

Markos BALENTZIAGA



ARRASTRO Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena:
altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu

Gure ordutegia hurrengoa da:

Astehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88





■ Pailazoekin Frontoia goraino

Bergarako Frontoia pilota jaialdi garrantzitsuetan moduan bete zen igandean (hainbat herritar Frontoira sartu ezinik geratu ziren) **Txirri, Mirri eta Txiribiton** pailazoan emanaldia ikusteko. Telebistako pailazoek gaztetxo eta nagusien irriparrea piztea lortu zuten eta beren ikuskizunean ez ziren falta izan bere azken diskoko abestiak. Pailazoek karnabal igandeko giro hotza berotu zuten, eta hurrek eta nagusiek primeran pasa zuten pailazoan komeriek.

■ Zuhaitz eguna

Larunbatean zuhaitz eguna ospatu zen Bergaran. **San Martzialen, Mendia Bizirikeko** kideak eta ikasle talde bat bildu zen eguerdian eta, ordubetez, zuhaitzak landatzen jardun zuten. Guztira, 100 bat zuhaitz landatu ziren eta Udaleko langileak ere astelehen goizean bertan izan ziren lanean. Larunbatean gogor lan egin zutenei ogitartekoa eta edariak banatu zitzaizkien. Aipatzekoa ikasleen partaidetza eskasa, argazkian agertzen direnak bakarrik izan baitziren zuhaitzak landatzen. Ea hurrengo urtean gehiago animatzen diren...



Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Masterreka 24

*Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak*

Masterreka, 24 BERGARA

■ Izar beteranoa

Gabriel Medinak (eskumaldean argazkian) primerako artista dela erakutsi zigun ostiral goizean.

Berarekin topo egin genuen plazan eta aste honetako inkestako galderari erantzun ondoren, berak idatzitako abesti batzuk eskeini zizkigun Plazan bertan. Gazte gaztetatik gustatu izan zaio abestea eta herriz herri ibili omen da bere kantuak eskeiniz. Orain, jubilatuta dagoenez, denbora gehiago dauka bere konposizioak egiteko eta telebistako izar bihurtzeko lehendabiziko pausua eman du.

Medinak bere bideo bat bidali du ostiraletan TVE-1ean **Jordi Estadellak** aurkezten duen "El semáforo" saiora eta oraindik erantzunaren zain dago. Gu eta Plazatik pasatzen ziren herritarrak bere artearen testiguak izan ginenez, horra hor gure txaloa...



Zertan dihardute ba?



Mireia Gabilondo aktorea bergararrak, Fernando Bernuesekin batera, Tanttaka antzerki taldearen "El florido pensil" azken antzezlan zuzendua. Tanttaka taldearen azken muntaia gaur estrainatuko da, Ordiziako Herri Antzokian gaueko 10.15etan. "El florido pensil" Andres Sopena idazlearen nobela arrakastatsuan oinarrituta dago. Bertan, umorez, Francoren garaiko ikastetxe erlijioso baten giroa azaltzen da. Tanttakaren lan honetan Enrike Diaz de Rada, Zorion Egileor, Mikel Garmendia, Pako Sagarzazu eta Jose Ramon Soroz aktore ezagunek hartzen dute parte.

■ Hauteskunde kanpainan

Udal langileek hauteskunde kanpainarako panelak jarri zituzten pasa den astean. Panelak 24 m2koak dira eta **Espoloian, Torrekuan, Frontoian, Matxiategin, Zubietan, Bolun, Osintxun, Uberan, Angiozarren, Elorregin, Oxirondon, San Antonion eta Artzamendin** jarri ziren. Horrez gain, pankartak jartzeko lekuak zehaztu ziren eta alderdiek herriko **276 farola** erabili ahal izango dituzte beren publizitatea jartzeko. Hauteskunde Juntak zehazten du alderdi bakoitzari



dagokion espazioa. Bestalde, panelak azken hauteskundeetako karteekin azaldu ziren, garbitzeke baitzeuden. Askok ez zuten alderik antzemango...

Deco-Textil
ZANGITU
 Etxerako lantzeria
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, etab.
 Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
 • Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

ZAPELAITZ
Taberna
 Eguneko menuak
 astelehenetik ostiralera
San Lorenzo, 25 BERGARA

Maribi Oregi

Maribi Oregi ogi artean egoten da goizean goizetik. Konde Panaderokuan lan egiten du eta bertan pasatzen ditu egunak dituen ordurik gehienak.

- Ogi artean lan egiten, beti goseak?
- Batez ere ogia labetik ateratzen denean tentazio handia izaten da, baina ahoa itxi egin behar izaten dut.
- Zenbat egun egon zaitezke ogirik jan barik?
- Batere ez, oso ogizalea naiz.
- Gatz bareko ogia ala gazduna?
- Gazduna, gatz barekoak ez du gaztariak, sosoa da.
- Gutxi gustatzen zaizuna?
- Laxantea, fuerte samarra da.
- Erregimenetan integrala jaten duzu?
- Ogi normala jateari ez diot lagatzen.
- Egunen batean irinik gabeko ogia jango dugu?
- Ez, ez litzateke ogia izango.
- Bollogintzak tentaziorik ematen dizu?
- Ogiak gehiago, bollorik ez dut jaten.
- Gosaltzeko txorixodun opila ala kafesnea kruasanarekin?
- Kafesnea, niretzat beharrezkoa



“Aurtengo ihauterietan ez naiz jantzi eta penaz geratu naiz. Maitasun gutunik ez dut sekula idatzi.

Ogia egin berria denean tentazio izugarria izaten da, baina ahoa itxi egiten dut, bestela...”

da.

- Ogia zerekin da onena?
- Txorixoarekin, tortillarekin... zerekin ez?
- Zerekin ez duzu jaten?
- Platanoa ez den fruitekin.
- Enpatxoaren ostean baraua?
- Ez, normal jaten segitzen dut.
- Bezperako ogia baino burugogorragoa zara?
- Ez naiz burugogorra.
- Nor da ogia baino hobea?
- Nire senarra ezingo dut esan, haserretu egingo da-eta.
- Ogia nori ukatuko zenioke?
- Gezurrak esaten dituenari.
- Sofan egotea ala mendi ibilaldia egitea?
- Momentuaren arabera, baina mendian ibiltzea asko gustatzen zait.
- Maitasun gutun baten amaieran zer jarriko zenuke?
- Sekula ez dut idatzi.
- Hegazkinez ibiltzeak beldurra ematen dizu?
- Sugeekin beldurtzen naiz.
- Eurovisionen abestuko zenuke miloi baten truke?
- Bai, baina diruagatik, ez ondo kantatzen dudalako.
- Amesgaiztorik izaten duzu?
- Seme-alabak kotxeak harrapatzen dituela.
- Mozorro bat jazteak pertsona horren nortasunaren zerbait adierazten du?
- Hala diote, baina nik horrelako teoriei ez diet kasorik egiten.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

LONBIDE OINETAKOAK




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behe
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

ZURICH



UNIBER

CAUDAL

HISPANIA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Mugertza ka-
lean. ☎ 76 13 62.

Pisua alokatuko genuke
Bergaran. ☎ 76 25 31
(Alex) edo 76 13 64 (Aitor).

Lokala alokatzen da Bide-
kurutzetan. ☎ 76 36 99.

Pisua salgai Barrenkalen.
Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Etxe berria Masterrekan
salgai. ☎ 76 49 87.

Pisua salgai Burdiñaten.
70 m2. ☎ 76 38 06.

Pisua alokatzen da Bide-
kurutzetan. ☎ 76 36 99.

Garajea salgai Ibargarain.
☎ 76 44 25.

Lokala alokairuan Koldo
Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (bi plaza) salgai
Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden
85 m2. ☎ 76 31 57 (gauzez).

Pisu bat alokatzen da An-
tzuolan. ☎ 76 21 06.

Garajea salgai Kruz Ga-
llastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai Bolun (2
plaza). ☎ 76 54 11.

Garajea salgai Zurrade-
ron. ☎ 76 13 93.

DENETARIK

Txakurrarendako kase-
ta txikia salgai. ☎ 76 09 12.

Poltsikoko **Casio telebis-
ta** salgai. ☎ 76 56 13.

Urrezko pultsera bat
galdu nuen Gabonetan San
Pedro inguruan.
☎ 78 03 48.

Hi-Fi kate txiki bateko bi
bafle salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra
salgai. ☎ 76 20 26 (gauzez).

486 Compaq ordenado-
rea salgai. 200.000 peze-
ta. ☎ 76 00 91 (Javier)

GAC Kanowey **motor** bat
saltzen dut. 49,9 cc. Ego-
era onean eta prezio inter-
resgarria. ☎ 78 70 98.

Renault 4 F6 kotxea sal-
gai. ☎ 76 22 11.

Ford Sierra kotxea (SS-
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Bigarren eskuko **karabina**
erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Musika bateria salgai. Ia
berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa
erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Josteko makina salgai.
Egoera eta prezio onean.
☎ 76 48 47 (Loli).

Estilo errustikoko **logela**
salgai. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai.
☎ 76 58 62 (gauzez).

Opel Corsa (SS-U) kotxea
salgai. ☎ 76 46 54.

**Comodore ordenagai-
lua** salgai. 50.000 pezeta.
☎ 76 56 13 (Iker).

LANA

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika eta zientzie-
tako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ordenadorez lanak pasa-
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak
ematen dira. ☎ 76 33 26.

Matematika klaseak.
☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 52 89

Etxeko lanak egin eta
haurrak zainduko nituzke.
☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen
neska batek lan egingo
luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Neska batek haurrak edo
zaharrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak a-
rratsaldez klase partiku-
larrak emango lituzke.
☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika (Enpresari-
tza maila) klaseak hartuko
genituzke. ☎ 76 26 82.

Gutxitu psikikoak, hau-
rrak edo zaharrak zaintzen
ditut. ☎ 76 48 65 (Paki).

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA


 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

KONDE PANADEROKUA

Burdinate, 1 ☎ 76 02 57

Iturkintz Berri
INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

BONOFOTOA



Alvaro Aranzabal

Alvaro Aranzabalek jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera asmatu eta ondorengo zozketan bere izena irten delako. Argazkian agertzen ziren iturriak non zeuden galdetzen genizuen eta erantzunak Gorko kantinaren ondoan eta Zabalotegin ziren. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Alvaro Aranzabali** eman dizkiogu. Zorionak!!

Bergarako kale honek epaitegi gaineko "Justa" Donostiako "Okendo", Loiolako "San Inazio", Getariako "Elkano", Mutrikuko "Txurruka", Zumarragako "Legazpi" eta abarren irudien egilearen izena darama. Zein da Bergarako eskultore ospetsu horren izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	25	11	34	10
2. ERROTAGAIN	25	11	39	20
3. OGIZUN	23	11	43	30
4. MONGATXURRA	22	12	50	21
5. KABIA	20	12	31	32
6. MADURA INDUSTRIAS GOL	19	11	35	20
7. BILDURBAREK OPEL/LAM	14	12	28	29
8. ORTZI	13	12	21	37
9. ARLOTEAK	9	11	24	31
10. OZAETA	4	12	26	43
11. UFALA	3	12	23	51
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	38	14	101	36
2. A ZE FLAXA	32	14	48	32
3. PAGOMENDI	26	13	60	39
4. ARTUSAMAK	26	14	54	38
5. NAIKARI HOOLIGANS	19	14	50	39
6. ETXAGI	16	14	60	55
7. KAYAK OS JARDINEIROS	16	14	66	49
8. UVE BIKOITZA	16	14	38	54
9. HALTZARI	15	14	33	52
10. INDARGORRI	12	14	21	30
11. AUTOBEREZI	12	13	42	51
12. ERI	10	14	36	52

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	34	14	78	39
2. SOROPOTROAK	33	14	78	37
3. LA JUVE	25	14	49	45
4. EZINLEIKE	24	14	64	39
5. NEKROFILIKOS	24	14	60	44
6. AMOZKIBAR	23	13	32	20
7. MOSKIS	20	14	36	54
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	19	14	49	48
9. EH BITERRAK	14	13	26	46
10. ARI ARI	9	14	34	66
11. SHAKTALE	8	14	25	52
12. IGANDEKOAK	7	14	34	52

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	34	13	74	25
2. GUADALEST	26	12	62	20
3. TXIPIRON	25	13	49	31
4. PJS	22	12	54	24
5. OSINTXU	20	12	51	29
6. PATXARAN TEAM	20	13	42	33
7. PATA NEGRA	16	13	55	68
8. MATXAKATEGI	14	13	54	61
9. LABEGARAIETA	12	13	30	59
10. ALDOKA MALDOKA	10	12	38	58
11. XURRUPAK	0	13	20	80

TALDEAK



Patxaran Team taldea Eneko Beistegi, Iñigo Igarza, Gorka González, Iker Mardaras, Gorka Carvallo, Rafa Herrán, Iñaki Leturia, Eduardo Txurruka, Aitor Basabe, Sebas Etxeberria, Iban Barrutia eta Iñaki Larrañagak osatzen dute.

Laugarren mailan daude eta bigarren urtea dute txapelketan. Saillkapenean nahiko aurrean dabilta eta adierazi digutenez euren helburua mailaz igotzea da. Izenari dagokionez, Antzuolako jaietatik datorrela esan digute, "jaietan asmatu genuen, patxaran batzuk edan genituen, baina kontrakoa pentsa daitekeen arren, trankil ibili ginen...".

PARTIDUAK

LARUNBATEAN KANPOAN

09.00: Labegaraieta-P. Negra • **Matxakategi**
10.00: Matxakategi-Xurrupek • **Labegaraieta**
11.00: Amozkibar-Shaktale • **Ozaeta**

IGANDEAN BARRUAN

09.00: Txipiron-Patxaran Team • **Iganekoak**
10.00: Moskis-Iganekoak • **Patxaran Team**
16.00: Ozaeta-Bar Canalejas • **Kirolzaleak**
17.00: Kirolzaleak-La Juve • **Ozaeta**
18.00: Construcc. Bergara-Ari Ari • **La Juve**
19.00: Soropotroak-Nekrofilikos • **C. Bergara**
20.00: Guadalest-Osintxu • **Nekrofilikos**

IGANDEAN KANPOAN

11.00: Ogizun-Arloteak • **Madura Ind. Gol**
12.00: Madura Ind. Gol-Ufala • **Arloteak**
13.00: Ezinleike-EH Biterrak • **Ufala**
16.00: Pagomendi-Autoberezi • **PJS**
17.00: PJS-Aldoka Maldoka • **Pagomendi**

BERGATRANS KANPORATUA

Shaktale, Etxagi, eta Uve Bikoitza taldeei zigorra ezarri die Antolaketa Batzordeak euren partidutara ez aurkezteagatik. Partidua 1 eta 0 galdutzat eman die eta talde bakoitzari hiruna puntu kendu dizkie. Berriz ere beste partidua batetara aurkezten ez badira, txapelketatik kanporatuak izango dira. Aste honetako saillkapenean ez dizkiegu hiru puntuok kendu.

EMAITZAK

1. MAILA

OZAETA-KABIA **0 - 2**
 ORTZI-BILDURBAREK OPEL/LAM **0 - 6**
 MONGATXURRA-UFALA **8 - 1**

2. MAILA

ERI-NAIKARI HOOLIGANS **0 - 1**
 JAUJA OH ZEREZOS-KAYAK OS JARDINEIROS **6 - 6**
 INDARGORRI-UVE BIKOITZA **1 - 0**
 ARTU SAMAK-A ZE FLAXA **1 - 5**
 ETXAGI-HALTZARI **0 - 1**

3. MAILA

KIROLZALEAK-EH BITERRAK **5 - 2**
 ARI ARI-IGANDEKOAK **2 - 3**
 AMOZKIBAR-LA JUVE **3 - 0**
 NEKROFILIKOS-C. BERGARA **4 - 7**
 MOSKIS-SHAKTALE **4 - 0**
 SOROPOTROAK-EZINLEIKE **1 - 2**

4. MAILA

TXIPIRON-PATA NEGRA **5 - 3**
 LABEGARAIETA-PJS **4 - 2**
 PATXARAN TEAM-MATXAKATEGI **3 - 5**
 XURRUPAK-FAC **1 - 9**

TALDEAK



Matxakategi Ibon González, Iñigo Aranzabal, Iker Unamuno, Kepa Leturia, Ander Garitano, Mikel De Pedro, Ander Uribealago, Gorka Mujika, Ion Garmendia, Alain González, Gorka Areitio eta Jon de Pedrok osatzen dute. 4. mailan daude eta aurtengoa da euren lehenengo urtea. Orain arteko emaitzak, "eskasak izan direla" aitortu digute, partidua asko galdu baitute. Txapelketari dagokionez, nahiko garestia dela eta ordu txarrak tokatzen zaizkiela adierazi digute Matxiategi auzokoek.

T XINPARTAK

BKEko futbol taldeak bikain

BKEko futbol taldeek ihardunaldi bikaina burutu zuten joan zen asteburuan inork ez baitzuen galdu. Gainera errejonaleko taldeak 7 eta 0 irabazi zion Alde Zaharrari, 2. mailako kadeteek 11 eta 1 Gazteaki eta ohorezko mailako jubenilek 6 eta 0 Santo Tomasi. Emaitza bikainekin jarraituz lehen mailako kadeteek 5 eta 1 irabazi zioten Danenari, lehen mailako infantilek 2 eta 1 Santo Tomasi eta 2. mailako jubenilek hutsna berdindu zuten Ordizian.

Karatea igandean

Igandean goizeko 11etatik aurrera Labegaraieta Labegaraieta kiroldegian Bergara karate elkarteko kideek karate erakusketa egingo dute.



Guk eta Berdin Du taldeak, aurreko asteburuan elkarren kontra jokatutako partidua hasi aurretik.

Potzu Ta Zapaburu nesken futbitoan lider

Emakumezkoen futbito txapelketako lehen buelta jokatu dute talde guztiek eta 5 partidu jokatu ondoren Potzu eta Zapaburuak taldea dago lehen postuan 15 punturekin partidurik galdu gabe. Bigarren, 12 punturekin, Albondigak taldea; 3., Guk 6 punturekin; 4.,

Push Team 4 punturekin; 5., Berdin Du 4 punturekin; eta azkenik, 6. postuan, 2 punturekin Blue Star taldea dago.

Oraindik bigarren. buelta osoa gelditzen zaien eta bukatu ondoren 4 lehenengoak hurrengo faserako sailkatuko dira. Orain arte, antolatzaileek

esan digutenez, txapelketa ezin hobeto doa eta ez da ez ustekorik izan.

Bestalde golegile onen sailkapenari begiratu, Nekane Gabilondo 9 golerekin da onena. Ondoren, 6 golekin, Ane Olabide dago. Uxue Lazkano eta Agurtzane Letek, berriz, 5na gol sartu dituzte.



Lehen maila probintzialeko 4. postuan sailkatuta daude.

Bide onetik herriko saskibaloijokari nagusiak

Lehen maila probintzian dabilen BKEko nagusien saskibaloijokari taldea, joan zen urtean mailaz igo ondoren, denboraldi bikaina ari da egiten. Izan ere, BKEkoak 14 taldeen artean 4. daude eta kontutan izan behar da maila horretan 2. maila nazionalerako talde batzuren 2. taldeak ari direla jokatzen eta horrek gauzak zailtzen dituela. "Denboraldia hasi baino lehen gure helburu nagusia maila mantentzea zen eta horrekin batera taldea kontsolidatzea" adierazi digu Alex Familiar BKEko kideak. Liga amaitzeko 8 partidu gelditzen zaizkie eta ezinezkoa da mailaz igotzea lehenengoak, Larramendi taldekoak, urrun baitaude.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-La Salle

Ohorezko mailako jubenilak.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

◆ Bergara-Don Bosco

2. mailako jubenilak.

Larunbata, 15.30. Ipintza.

◆ Bergara-Billabona

Lehen mailako kadeteak.

Igandea, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-S. Herrera

Lehen mailako infantilak.

Igandea, 10.00. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Push Team-Berdin Du

Igandea, 16.00.

Migel Altuna Institutua.

Kantxa nagusia.

◆ Guk-Almondigak

Igandea, 16.00.

Migel Altuna Institutua.

Bigarren kantxa.

◆ Blue Star-Potzu T.Z.

Igandea, 17.00.

Migel Altuna Institutua.

Kantxa nagusia.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Bidebieta

Jubenil mutilak.

Larunbata, 16.00.

Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Mundaka

Kadete neskek.

Larunbata, 17.15.

Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Mundaka

Jubenil neskek.

Larunbata, 18.30.

Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Haurtzaro

Senior mutilak.

Larunbata, 18.30.

Mariaren Lagundia.

Aitor Oregi

Asegarceren nominan

Aitor Oregi pelotaria, lilabete batzuk geldirik egon ondoren, duela 2 aste hasi da berriz jokatzen Asegarceren eskuetik, eta dagoneko 4 partiduko jokatu ditu. Profesionaletan 24 urterekin debutatu ondoren orain urtebeteko kontratua du berak duen guztia emateko.

- Zer moduz joan zen asteburuan Leonen jokatutako partidua?

- Ondo esan beharko, bidaia luze egin arren, bategatik irabazi genuen. Joko aldetik, ez genuen partidua ona egin, baina Leongo jendea ondo portatu zen. Asteburuan, Quintanar de la Sierrara (Burgos) noa eta partidua jartzen dizkidaten bitartean, ondo. Jokutik, eskuak nahikoa bigunak dauzkat, udatik astero-astero jokatzen ez nuelako, baina bestela ondo.

- Enpresarekin gustora?

- Ondo, jokatzen ari naiz eta gustora. Orain, badakit ez dela "txollo" bat, urtebeterako kontratua daukat eta gorantz ez badut egiten denbora horretan beste bat dator atzetik. Txapelketa guztiak amaituta daude eta ezin dut parte hartu, baina badago jendea txapelketetan parte hartzen ez duena eta hor jarraitzen duena.

- Zezegara eota Arretxe urrun ikusten dituzu?

- Oso urrun ez, baina beti batzuk ikusten dira.

- Nola definitzen duzu zure burua pelotari moduan?

- Ondo nagoenean erregularra naiz, eskumarekin ondo moldatzen naiz, ezkerarekin berriz eskastxoago. Ez naiz oso jotzailea, baina defenditzen naiz. Urtebetean joko handiegirik gabe ibili naiz erritmo faltagatik, baina aurreko bi urteetan pozik ibili naiz.

- Nola ikusten duzu Goñiren debuta?

- Nik ez dut jokatzen ikusi; komentatu didatez, oraindik huts handiak ditu, baina zerbait ikusi diote eta debutatu egin du. Nirekin batera pasa

ditu proba fisikoak Asegarcerako eta fisikoki nahiko berde dago. Baina hori oso erlatiboa da, pelotaria baldin bazara, ez daukazu zertan kilometroak korrika egin beharrik. Mutil hori oso pelotaria eta oso karakteronkoa da. Baina oraindik asko ikasi behar du.


- Asegarcek espektakuloaren aldeko apustua egin al du?

- Bai, lehen jubeniletan pelotari jotzaileak bilatzen zituzten. Orain, espektakuloa ematen dutenen bila dabilta. Niri neuri, hori gustatzen zait, jendeak tantoa galtzeko beldurra galdu egin behar du.



"Gorantz ez badut egiten, beste bat etorriko da atzetik"

"Pelotariok tantoa galtzeko beldurra galdu behar dugu"



1964ko Jaunartzeak

Garai bateko jaunartzeen adierazgarri duzue goiko argazkia. Gaur egun gutxi batzu izango dira marinel jantzita joango direnak baina duela urte batzu egun berezi horretako *traje ofiziala* izaten zen. Hor ditugu mutikoak serio serio eta dotore jantzita, beharrezko katekesi klaseak hartu ondoren, eta pentsatzen dugu egun horretako nerbioak baretu ezinik.

Argazkia 1964koa da eta bertan agertzen direnek 38 urte inguru izango dituzte gaur. Ziur gehienak ezagunak izango zaizkizuela...

Horra hor beraien izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Mariano Jauregi, Jesus Roman Azkarate, Manso, Jose Angel Amasorrain, Mikel Gómez, Jose Antonio Martínez, Jose Antonio Elorriaga, Manuel Alberdi eta Pedro Marauri.

Behean: Julian Ugalde, Gabriel Agirre, ezezaguna, Ramon Correlas, Jose Mari Oroiz, Jose Mari Aranzabal, Valentin Gorosabel, Alex Calvo eta Mikel Garitano.

Argazkia: Rosario Azkarate

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 71. ☎ 76 31 71

**GURE AZKEN
NOBEDADEA:**

**BETIRAKO
DEPILAZIO
ELEKTRIKOA!!**

**AURPEGI ZEIN
GORPUTZAREN
EDOZEIN ATALETAN**

**GIZON ETA
EMAKUMEENTZAT**




Lilura Edertze-institutuak bere 15. urteurrenean,

100.000 pzta.tik gorako balioa duen zahartzearen aurkako tratamendu

estetiko-mediku ballagarri bat zozketatuko du.

Hemendik **martxora arte** jasotzen duzun zerbitzu bakoitzeko **bonu bat** emango dizugu zozketa paregabe

honetan parte har dezazun.



HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak

Sukalde zoragarriak

